



ORDEN del 20 de junio de 2019 del Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno por la que se aprueba con carácter previo el anteproyecto de ley de recurso de casación civil vasco.

Mediante Orden de 5 de junio de 2019 el Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno ordenó el inicio del procedimiento para la elaboración y aprobación de un proyecto de ley de casación civil vasca.

La citada Orden apela a la labor realizada en el seno de la Comisión de Derecho civil vasco, y a la propuesta de norma que, tras los trámites llevados a cabo en el seno de la Comisión y que la propia orden describe, ha sido elevada por el Comité Técnico a la Presidencia de la Comisión, cargo que ostento en mi condición de Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno. Así mismo, en esa misma orden se designa a la Dirección de Desarrollo Legislativo y Control Normativo como órgano encargado de la tramitación de este procedimiento legislativo, fruto de cuya labor se ha elaborado el presente anteproyecto, redactado ya de un modo bilingüe siguiendo las previsiones del acuerdo de Consejo de Gobierno de 14 de mayo de 2013 "por el que se aprueban las medidas para la elaboración bilingüe de las disposiciones de carácter general que adopten la forma de ley, decreto legislativo, decreto u orden".

Por todo ello, visto el texto del anteproyecto de ley elaborado,

RESUELVO:

Primero.- Aprobar con carácter previo el texto bilingüe del anteproyecto de ley de recurso de casación civil vasco, de conformidad con lo previsto en el artículo 7 de la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general.

Segundo.- Ordenar la continuación de la tramitación del procedimiento del proyecto de ley de recurso de casación civil vasco, de conformidad con los trámites establecidos en la Orden de inicio y en la Ley 8/2003, de 22 de diciembre, del procedimiento de elaboración de disposiciones de carácter general, con carácter previo a su remisión al Consejo de Gobierno para su aprobación.

En Vitoria-Gasteiz a 20 de junio de 2019

El Consejero de Gobernanza Pública y Autogobierno

JOSU IÑAKI ERKOREKA GERVASIO

TESTU ARTIKULATUAREN
PROPOSAMENA

EAE-KO KASAZIO-ERREKURTSO
ZIBILARI BURUZKO LEGE-
PROIEKTUA
LEHENENGO ZIRRIBORROA

ZIOEN AZALPENA

Euskal Zuzenbide Zibilari buruzko ekainaren 25eko 5/2015 Legearen 2.3 artikulua Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko Salari ematen dio doktrina bateratzeko mandatua, hain zuzen ere jurisdikzioa Euskal Autonomia Erkidegoan duten epaileek eta auzitegiek prozesu-legeriak une oro ezartzen duen errekurtsoen bidetik emandako ebazpen arrazoituetatik eratorritako doktrina.

Gaur egun, EAEko zuzenbide zibilaren, foralaren edo bereziaren arauak hausteagatik jarritako kasazio-errekurtsoari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Arlo Zibileko eta Zigor Arloko Salaren eskumena berariaz dago aurreikusita, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 14.1.a) artikuluan ez ezik, Prozedura Zibilaren Legearen 478.1 eta 489. artikuluetan ere (eskumen horrek Konstituzioaren 152. artikuluan eta Botere Judizialaren Lege Organikoaren 7. artikuluan du oinarria).

PROPUESTA DE TEXTO
ARTICULADO

PROYECTO DE LEY DE
RECURSO DE CASACIÓN CIVIL
VASCO
PRIMER BORRADOR

EXPOSICIÓN DE MOTIVOS

El artículo 2.3 de la Ley 5/2015, de 25 de junio, de Derecho Civil Vasco encomienda a la Sala de lo Civil del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco la tarea de unificar la doctrina que, a través de los recursos pertinentes que en cada momento establezca la legislación procesal, emane de las resoluciones motivadas de los jueces y tribunales con jurisdicción en el País Vasco.

En la actualidad la competencia de la Sala de lo Civil y de lo Penal del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en relación con el recurso de casación por infracción de las normas del Derecho civil, foral o especial propio del País Vasco, derivada de los artículos 152 de la Constitución, 73 de la Ley Orgánica del Poder Judicial, está expresamente prevista, además de en el artículo 14.1.a) del Estatuto de Autonomía para el País Vasco, en los artículos 478.1 y 489 de la Ley de Enjuiciamiento Civil.

Sin embargo, estas previsiones

Halere, lege-aurreikuspen horiek ez dute orain arte nahi bezalako emaitzarik izan, eta EAEko Justizia Auzitegi Nagusiak emandako ebazpenen kopurua urria baita EAEko zuzenbide zibila behar beste epaiz hornitzeko, Auzitegi horrek eskatzen zaion funtzio bateratzailea bete ahal izan dezan.

Eta hori gertatzen da ebazten diren auziak, hainbat arrazoiengatik, gutxi direlako, eta denboran zehar kopurua gutxitzen joan delako. Arrazoi horien artean nabarmendu behar da Prozedura Zibilaren Legearen IV. tituluko V. kapituluan jasotako araudia ez zaiela egokitzen euskal zuzenbide zibilak dituen benetako premiei. Hain zuzen ere, EAEko kasazio zibila kasazio orokorraren eskakizun zorrotzen mende egoteak kasazio-prozedurari hainbat xedapen, materia eta foru-instituzio kentzen dizkio, balorazio ekonomiko prozesal mugatua eduki arren oso errotuta daudenak eta gatazka sozial handiak eragiten dituztenak, bakoitzak bere eremuan, *summa gravaminis* irizpidea aplikatzeagatik kanpoan geratzen direlako eta, beraz, irismen orokorreko jurisprudentziarik gabe uzten direlako.

Arazo hori konpontzeko, Euskal Herriaren Autonomia Estatutuaren 10.5 eta 14.1.a) artikuluetan xedatutakoaren arabera, eta Konstituzio Auzitegiak Konstituzioaren 149.1.6 artikuluari buruz egindako interpretazioaren babesean (Konstituzio Auzitegiaren martxoaren 25eko 47/2004 Epaia), Eusko Legebiltzarrak Euskal zuzenbide zibilaren arloko kasazio-errekurtoa arautzeko lege bat egin ahal izango du, euskal zuzenbide zibilak dituen berezitasunek eragiten

legales no están dando hasta ahora los frutos que sería deseable, de cara a dotar al Derecho civil vasco de un acervo suficiente de pronunciamientos judiciales a nivel del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, que permitan realizar plenamente la función unificadora de la doctrina que a dicho Tribunal se le encomienda.

Y ello porque, debido a una multitud de causas, son claramente escasos los asuntos que se resuelven, y su número ha ido decreciendo con el paso del tiempo. Entre dichas causas destaca la falta de adecuación de la normativa contenida en el Capítulo V del Título IV de la Ley de Enjuiciamiento Civil a las reales necesidades del Derecho civil vasco. Singularmente, la sujeción de la casación civil vasca a las rigurosas exigencias de la general ha venido sustrayendo al enjuiciamiento casacional disposiciones, materias e instituciones forales que, pese a su limitada valoración económica procesal, son de gran arraigo y conflictividad social en sus respectivos ámbitos, privándolas con su exclusión por la *summa gravaminis* de una jurisprudencia de alcance general.

Para solucionar este problema, de conformidad con lo previsto en los artículos 10.5 y 14.1.a) del Estatuto de Autonomía para el País Vasco y al amparo de la interpretación del artículo 149.1.6º de la Constitución realizada por el Tribunal Constitucional (Sentencia del Tribunal Constitucional de 47/2004, de 25 de marzo), el Parlamento Vasco puede elaborar una Ley que regule el recurso de casación en materia de Derecho civil vasco, en atención a las necesarias especialidades que en

dituzten premia bereziei erantzuteko, zuzenbide zibil, foral eta berezi propioa duten beste autonomia-erkidego batzuek egin duten bezala.

Alde horretatik, eta herritarren eskubideak babesteko bermeak areagotze aldera, legeak gaiari buruz estatuan dagoen araudi berrienaren bidetik jotzen du; hau da, kasazio-errekurtsoa indartu egin nahi du, tresna nagusia izan dadin zuzenbidea modu uniformean aplikatzen dela bermatzeko. Ez dugu ahaztu behar, beste ikuspuntu batetik begiratuta, aurrekari garrantzitsu bat ezarri duela uztailaren 21eko 7/2015 Lege Organikoak (Botere Judizialari buruzko uztailaren 1eko 6/1985 Lege Organikoa aldatzen duenak); izan ere, administrazioarekiko auzien jurisdikziorako onartutako kasazio-errekurtsoaren konfigurazio berriak bide berri bat ireki du, proiektu honetan oraingoz jorratuko ez duguna, beste jurisdikzio-ordena batekoa delako. Dena dela, aurrekari hori dela eta, nabarmendu behar da EAEk, kasazio-errekurtsoa arautzeari dagokionez, hor joka dezakeen rola, Konstituzioaren 149.1.6 artikulutik bertatik abiatuta, edo Autonomia Estatutuaren 14.1.c) artikuluan oinarrituta. Aurrekari hori bereziki interesgarria da arlo zibilean, zeinetan Probintzia Auzitegiek beti jarduten baitute bigarren instantzian.

Lege honek oinarrizko bi premisa ditu abiapuntu:

- Muntaren betekizuna ezabatzea, eta kasazio-interesik izanez gero kasazio-errekurtsoak aurkeztu ahal

este orden se derivan de las particularidades del Derecho civil vasco, como ya han hecho otras Comunidades Autónomas con derecho civil, foral o especial propio.

En este ámbito, y con la finalidad de intensificar las garantías en la protección de los derechos de los ciudadanos, la ley opta por alinearse con la más reciente normativa estatal en la materia, en el sentido de reforzar el recurso de casación como instrumento por excelencia para asegurar la uniformidad en la aplicación judicial del derecho. No podemos obviar el precedente que, desde otro punto de vista, supone el la nueva configuración del recurso de casación para la Jurisdicción Contencioso-administrativa aprobado por la Ley Orgánica 7/2015, de 21 de julio, por la que se modifica la Ley Orgánica 6/1985, de 1 de julio, del Poder Judicial que abre un nuevo camino que, de momento, no se aborda en este proyecto por pertenecer a otro orden jurisdiccional. Del mismo, no obstante, cabe destacar, el papel que en relación a la regulación del recurso de casación puede jugar la Comunidad Autónoma, desde el mismo artículo 149.1.6º de la Constitución y, en ese caso, de lo previsto en el artículo 14.1.c) del Estatuto de Autonomía. Este ejemplo es especialmente interesante en materia civil, dónde la Audiencia Provincial actúa siempre como segunda instancia.

Esta Ley, en concreto, parte de dos premisas necesarias:

- Suprimir el requisito de la cuantía, admitiendo la presentación de los recursos de casación siempre que los

izatea onartzea, muntaren betekizunak ez dezan eragotzi auzi batzuk kasaziora iristea, zeren eta batzuetan, garrantzi handikoak izan arren edo euskal zuzenbide zibila interpretatzeari begira kasazio-interes handikoak izan arren, ekonomikoki balio txikikoak edo kuantifikaezinak izaten baitira, familia-zuzenbidearen arloan askotan gertatzen den bezala.

– Kasazio-interesa sinplifikatzea, auziaren gaineko jurisprudenziaz ez dagoenean edo Probintzia Auzitegiek ebazpen kontrajarriak eman dituztenean, Justizia Auzitegi Nagusira jo ahal izan dadin.

Horren arabera, kasazio-errekurtsoa izapidetzeko onartu ahal izango da, baldin eta prozesuko auzigaiak ebazteko aplikatu beharreko zuzenbidearen urraketa zehatz bat alegatzen bada eta, eksklusiboki edo beste zio batzuekin batera, EAEko zuzenbide zibilaren, foralaren edo bereziaren arauak urratzeari egiten badio erreferentzia. Betiere Salak irizten badio errekurtsoak baduela kasazio-interes objektiboa jurisprudenzia sortzeko; eta interes hori alegatu ahal izango da prozedura bai gaiaren arabera izapidetu denean, bai prozedura muntaren arabera zehaztu denean, eta, kontuan izanda euskal zuzenbide zibilaren arloan ekoizpen normatiboa txikia izan dela, bazter utzita jurisprudenzia-falta egozten zaion arauaren indarraldiak kasaziora jotzea eragozte.

Aurrekoarekin lotuta, eta kasazioa hirugarren instantzia bihur ez dadin,

mismos presenten interés casacional, de tal manera que este requisito no impida el acceso a la casación de aquellas cuestiones que, no obstante su extraordinaria importancia o el interés casacional que presentan de cara a la interpretación del Derecho civil vasco, pueden ser de escasa o imposible cuantificación económica, como a menudo sucede en materia de derecho de familia.

– Simplificar el interés casacional, de forma que siempre que no exista jurisprudencia sobre la cuestión, o las Audiencias Provinciales tengan resoluciones contrapuestas, se pueda acudir al Tribunal Superior de Justicia.

De esta forma, el recurso de casación podrá ser admitido a trámite cuando sea invocada una concreta infracción del derecho aplicable para resolver las cuestiones objeto del proceso, que exclusivamente o junto a otros motivos, haga referencia a la infracción de normas del Derecho civil, foral o especial propio del País Vasco. Y ello siempre que la Sala estime que el recurso presenta interés casacional objetivo para la formación de jurisprudencia, que podrá invocarse tanto cuando el proceso se haya tramitado por razón de la materia, como cuando la determinación del procedimiento se hubiese hecho en razón de la cuantía y, dada la hasta ahora escasa producción normativa en materia de derecho civil vasco, descartando que el tiempo de vigencia de la norma con relación a la cual se alega la falta de jurisprudencia impida el acceso a la casación.

En relación con lo anterior, y con la finalidad de que la casación no se

<p>eta soil-soilik bere funtzio nomofilaktikoa bete dezan, errekurtsioak onartzeko mekanismo bat diseinatzen da, zeinak deskribatzen baitu zein kasutan eraman daitekeen auzi bat Justizia Auzitegi Nagusira, kasazio-interesa duelako. Horrela, bada, Salak zenbait kasutan kasazio-interes objektiboa badagoela erabaki ahal izango du, eta errekurtsioa onartzeko autoan berariaz arrazoitu beharko du hori. Errekurtsioa kasu zehatzetan onartu beharko da, kasazio-interes objektiboa badagoela ikusten den kasuetan.</p> <p>Era berean, Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia orain dela ez horrenbeste urte sortu izanak (1989) behartzen gaitu –euskal zuzenbide zibilaren arau batzuei dagokienez eta, bereziki, ohiturei erreferentzia egiten diotenei edo Foruzuzenbide zibilaren konpilazioan edo lehen legeetan jasotzen ez diren iturriei dagokienez– kontuan hartu behar izatera aurretik egon zitekeen jurisprudenzia, eskuarki Auzitegi Gorenarena. Argitu behar da jurisprudenzia horrek kasazio-interesa justifikatzeko balioko duela, baldin eta doktrina hori indarrean badago, hau da, Justizia Auzitegi Nagusiaren jurisprudenzia-doktrinak hura ordeztu ez badu.</p> <p>Azkenik, berezitasun horiek guztiek ñabardura batzuk eranstera behartzen gaituzte kasazio-errekurtsioa ez onartzea bidezkoa den kasuei buruz, bereziki ez-onartze hori Lege honetan eskatzen diren betekizunak ez</p>	<p>convierta en una tercera instancia, sino que cumpla estrictamente su función nomofiláctica, se diseña un mecanismo de admisión de los recursos basado en la descripción de los supuestos en los que un asunto podrá acceder al Tribunal Superior de Justicia por concurrir un interés casacional. Así, la Sala de podrá apreciar que en determinados casos existe interés casacional objetivo, motivándolo expresamente en el auto de admisión. El recurso deberá ser admitido en determinados supuestos, en los que existe la presunción de que existe interés casacional objetivo.</p> <p>Del mismo modo, la relativamente reciente creación del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco (1989), en relación con algunas normas del derecho civil vasco y particularmente las que hagan referencia a la costumbre, o a fuentes no recogidas en la compilación o en las primeras leyes de Derecho civil foral, impone el tener en cuenta aquella jurisprudencia, generalmente del Tribunal Supremo, que hubiera podido precederle. Si bien, matizando que la misma solo tendrá valor de cara a justificar el interés casacional en la medida en que dicha doctrina esté vigente, es decir, en tanto no haya sido sustituida por doctrina jurisprudencial del Tribunal Superior de Justicia.</p> <p>Finalmente, todas estas especialidades imponen ciertos matices en relación a los casos en los que resulta procedente la inadmisión del recurso de casación, particularmente cuando la misma se</p>
---	--

<p>betetzean oinarritzen denean.</p> <p>1. artikulua. Xedea</p> <p>Lege honen xedea da EAEko Zuzenbide Zibilaren arloko kasazio-errekurtsoa arautzea, Euskal Herriko Autonomia Estatutuaren 14. artikuluan xedatutakoaren arabera.</p> <p>2. artikulua. Eskumena</p> <p>1. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Zibileko eta Zigor Arloko Sala arduratuko da, arlo zibilean, Euskal Herriko Autonomia Estatutuak, Botere Judizialaren Lege Organikoak edo Prozedura Zibilaren Legeak, baita lege-mailako beste edozein prozesu-arauk ere, esleitzen dizkion kasazio-errekurtsoez.</p> <p>2. Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiko Zibileko eta Zigor Arloko Salak ezin izango dio uko egin Auzitegi Gorenaren Lehenengo Salak igorritako kasazio-errekurtsoez arduratzeko eskumenari.</p> <p>3. artikulua. Kasazio-errekurtsoaren zioa eta kasazioan errekurritu daitezkeen ebazpenak</p> <p>1. Kasazio-errekurtsoaren oinarria izan beharko da, zio bakar gisa, prozesuaren objektu diren arazoak ebazteko aplikagarriak diren arauak haustea, betiere EAEko zuzenbide zibilaren, foral edo bereziaren arauak urratzeari egiten bazaio erreferentzia.</p>	<p>fundamente en que no se reúnen los requisitos exigidos en esta Ley.</p> <p>Artículo 1. Objeto</p> <p>El objeto de la presente Ley es la regulación del Recurso de casación en materia de Derecho civil del País Vasco, de conformidad con lo previsto en el artículo 14 del Estatuto de Autonomía para el País Vasco.</p> <p>Artículo 2. Competencia.</p> <p>1. La Sala de lo Civil y Penal del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco conocerá, en materia civil, de los recursos de casación que le atribuyan el Estatuto de Autonomía para la Comunidad Autónoma del País Vasco, la Ley Orgánica del Poder Judicial o la Ley de Enjuiciamiento Civil, así como cualquier otra norma procesal de rango legal.</p> <p>2. La Sala de lo Civil y Penal del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco no podrá declinar su competencia para conocer de los recursos de casación que le hayan sido remitidos por la Sala Primera del Tribunal Supremo.</p> <p>Artículo 3. Motivo del recurso de casación y resoluciones recurribles en casación</p> <p>1. El recurso de casación habrá de fundarse, como motivo único, en la infracción de normas aplicables para resolver las cuestiones objeto del proceso, siempre que haga referencia a la infracción de normas del Derecho</p>
---	--

<p>2. Kasazioan errekurritu ahal izango dira Probintzia Auzitegiek, auzitegi kolegiatu moduan jardunez, apelazioan emandako behin betiko epaiak eta autoak, kasazio-interesa baldin badute. Kanpoan utziko dira, oro har, prozesua amaitzen ez duten ebazpenak, ebazpen intzidentalak edo kautelazkoak eta xede berari buruzko beste prozedura bat hastea eragozten ez dutenak.</p> <p>4. artikulua. Kasazio-interesa</p> <p>Errekurtso batek kasazio-interesa duela ulertuko da kasu hauetan:</p> <p>1. Errekurritutako epaia Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiak euskal zuzenbide zibilaren arauak aplikatuta emandako jurisprudenzia-doktrinaren aurkakoa denean.</p> <p>2. Errekurritutako epaia oraindik indarrean egon litekeen doktrina historikoaren aurkakoa denean, eta baldin eta doktrina hori –Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusia, EAEn antolakuntza judiziala burutzeko ardura izango zuen organo gisa, sortu eta funtzionatzen hasi aurretik– EAEn zeuden epaile eta auzitegiek emandako epaien aurka aurkeztutako errekurtsioak ebazteko eta epai horietatik EAE osatzen duten Lurralde Historikoetako foru-zuzenbide zibilaren arloan eratorritako doktrina bateratzeko jurisdikzioa zuten auzitegiek emandako ebazpen irmoek behin eta berriz ezarri bazuten.</p>	<p>civil, foral o especial propio del País Vasco.</p> <p>2. Serán recurribles en casación las sentencias y autos definitivos dictados en apelación por las Audiencias Provinciales cuando actúen como tribunal colegiado que presenten interés casacional. Se excluyen, con carácter general, las resoluciones que no pongan fin al proceso, las que tengan carácter incidental o cautelar y las que no impidan un procedimiento posterior con el mismo objeto.</p> <p>Artículo 4. Interés casacional</p> <p>Se considerará que un recurso presenta interés casacional en los siguientes casos:</p> <p>1. Cuando la sentencia recurrida se oponga a doctrina jurisprudencial del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, dictada en aplicación de normas del Derecho civil vasco.</p> <p>2. Cuando la sentencia recurrida se oponga, en tanto en cuanto pudiera aún resultar vigente, a aquella doctrina histórica que, de forma reiterada, hubieran establecido las resoluciones firmes de todos aquellos tribunales a los que, con anterioridad a la creación y puesta en funcionamiento del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco como órgano encargado de culminar la organización judicial en el ámbito territorial de la Comunidad Autónoma, correspondiera jurisdicción para resolver los recursos presentados contra las sentencias de jueces y tribunales radicados en el País Vasco y unificar la doctrina que de estas emanase en materia de Derecho civil foral propio de los Territorios</p>
---	--

<p>3. Errekurritutako epaiak euskal zuzenbide zibilaren arauen mendeko auzi bat ebazten duenean eta horretaz Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren jurisprudentzia-doktrinarik ez dagoenean, ez legeari berari dagokionez, ezta eduki berdina edo antzekoa duten arau zaharragoei dagokienez ere.</p> <p>4. Errekurtsogileak behar bezala justifikatzen duenean planteatutako arazo juridikorako ezarritako doktrina aldatu beharra dagoela, aipatutako araua aplikatu beharreko garaiko errealitate soziala aldatu delako edo, arau hori aplikatzeko moduari buruz, azken batean arauaren espiritu eta helburuari eutsi behar baitzaio, komunitate juridikoak partekatzen duen iritzia aldatu delako.</p> <p>5. artikulua. Errekurtsua ez onartzea Kasazio-errekurtsua ez da onartuko, ez Prozedura Zibilaren Legean aurreikusitako kasuetan, ezta kasu hauetan ere:</p> <p>1.- Errekurtsua bidegabea bada, epaia ezin delako errekurritu edo zuzendu ezineko beste edozein forma-akats dagoelako.</p> <p>2.- Errekurtsua jartzeko idazkiak betetzen ez baditu Lege honek edo Prozedura Zibilaren Legeak kasu guztietarako ezarritako betekizunak.</p> <p>3.- Kasazio-interesik ez badago, Lege honetan xedatutakoaren arabera.</p> <p>4.- Errekurtsua argi eta garbi oinarririk gabea bada edo funtsean berdinak diren beste errekurtsu batzuk jadanik ebatzi badira funtsari buruz.</p> <p>5.- Aurreko artikulua 4. apartatuaren kasuan, Salak irizten dionean doktrina-aldaketa ez dela</p>	<p>Históricos que integran el País Vasco.</p> <p>3. Cuando la sentencia recurrida resuelva una cuestión sometida a la normativa del Derecho civil vasco de las que no exista doctrina jurisprudencial del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, sea esta relativa a la propia ley o de normas anteriores de igual o similar contenido.</p> <p>4. Cuando la parte recurrente justifique debidamente la necesidad de modificar la doctrina ya establecida en relación con el problema jurídico planteado porque hayan evolucionado la realidad social del tiempo en el que la norma invocada han de ser aplicada o la común opinión de la comunidad jurídica sobre el modo en que la aplicación de la norma ha de atender en última instancia a su espíritu y finalidad .</p> <p>Artículo 5. Inadmisión del recurso</p> <p>Además de en aquellos casos previstos en la Ley de Enjuiciamiento Civil, procederá la inadmisión del recurso de casación:</p> <p>1º. Si el recurso fuera improcedente, por no ser recurrible la sentencia o por cualquier otro defecto de forma no subsanable.</p> <p>2º. Si el escrito de interposición del recurso no cumplierse los requisitos establecidos, para los distintos casos, en esta Ley o en la Ley de Enjuiciamiento Civil.</p> <p>3º. Si no existiere interés casacional en los términos previstos en esta Ley.</p> <p>4º. Si el recurso careciere manifiestamente de fundamento o se hubiesen resuelto ya en el fondo otros recursos sustancialmente iguales.</p> <p>5º. En el supuesto del apartado 4 del artículo anterior, cuando la Sala</p>
---	--

<p>bidezkoa, legez aurreikusitako baldintzak betetzen ez direlako.</p> <p>6. artikulua. Prozedura Zibilaren Legearen aplikazioa</p> <p>Lege honetan arautzen ez den guztirako, prozesu-arau orokor gisa, Prozedura Zibilaren Legean kasazio-errekurtsorako ezarritakoa aplikatuko da.</p> <p>Xedapen iragankorra</p> <p>Lege hau indarrean jarri aurretik emandako ebazpen judizialak kasazioan errekurritu ahal izango dira, lege honetan xedatutakoaren arabera, errekurritzeko denbora baliiodunaren barruan baldin badaude.</p> <p>Azken xedapena</p> <p>Lege hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hogeit egunera jarriko da indarrean.</p>	<p>estime que no procede un cambio de la doctrina por no concurrir los supuestos legalmente previstos.</p> <p>Artículo 6. Aplicación de la Ley de Enjuiciamiento Civil</p> <p>En todo lo no regulado en la presente Ley sigue siendo de aplicación como norma procesal general lo establecido para el recurso de casación en la Ley de Enjuiciamiento Civil.</p> <p>Disposición transitoria</p> <p>Serán recurribles en casación, con arreglo a lo dispuesto en la presente ley, las resoluciones judiciales que, dictadas antes de su entrada en vigor, se encuentren en tiempo hábil de ser recurridas.</p> <p>Disposición final</p> <p>La presente ley entrará en vigor a los veinte días de su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco.</p>
---	--